



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko apirilaren 23a

58. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Noain-Elortzibarko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina
(2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Noain-Elortzibarko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 31n eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako fiskalizazio-txostena, Noain-Elortzibarko Udalari buruzkoa, 2012ko ekitaldikoa, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2014ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Noain-Elortzibarko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I.** Sarrera (3. or.).
- II.** Helburua (5. or.).
- III.** Norainokoa (6. or.).
- IV.** 2012ko kontu orokorrari buruzko iritzia (7. or.).
 - IV.1. Udalaren 2012ko kontu orokorra (7. or.).
 - IV.2. Legezketasuna (7. or.).
 - IV.3. Udalaren eta bere erakunde autonomoen egoera ekonomiko eta finantzarioa 2012ko abenduaren 31n (7. or.).
 - IV.4. Ganbera honek 2006ko fiskalizazio txostenean eman zituen gomendioak noraino bete diren (10. or.).
- V.** Udalaren 2012ko kontu orokorraren laburpena (11. or.).
 - V.1. Udalaren eta erakunde autonomoen 2012ko betetze bateratuaren egoera-orri laburtua (11. or.).
 - V.2. Udalaren aurrekontuaren likidazioa 2012an (12. or.).
 - V.3. Udalaren 2012ko aurrekontu-emaizta (13. or.).
 - V.4. Udalaren diruzaintza-gerakina 2012ko abenduaren 31n (13. or.).
 - V.5. Udaleko egoera-balantzea 2012ko abenduaren 31n (14. or.).
 - V.6. Udalaren 2012ko emaitza ekonomikoa (15. or.).
- VI.** Udalari eta haren erakunde autonomoei buruzko iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (16. or.).
 - VI.1. Alderdi orokorrak (16. or.).
 - VI.2. Udaleko langile-gastuak (19. or.).
 - VI.3. Udalaren ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastua (22. or.).
 - VI.4. Udalaren transferentziengatiko gastuak (24. or.).
 - VI.5. Udalaren inbertsioengatiko gastuak (26. or.).
 - VI.6. Udalaren aurrekontuko diru-sarrerak (27. or.).
 - VI.7. Hirigintza (29. or.).
 - VI.8. Musika eskola (30. or.).
 - VI.9. Kirol patronatua (33. or.).
 - VI.10. Kultur patronatua (35. or.).

I. SARRERA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak eskatuta, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak erabaki zuen Kontuen Ganberari eskatzea Noain-Elortzibarko Udalari buruzko fiskalizazio txosten bat egin zezan.

Eskari hori betetzeko, Kontuen Ganberaren 2013rako urteko programan sartu zen Noaingo Udalaren eta haren sektore publikoaren 2012ko kontu orokorraren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa.

Noaingo Udala udalerrri konposatua da, 48,24 km²-ko azalera duena. 2012ko urtarrilaren 1ean, 7.566 biztanle dauzka. Honako kontzeju eta bizitokiek osatzen dute:

Kontzejuak eta bizitokiak	Biztanleria
Elortz	261
Gerendiain	27
Imarkoain	333
Dorre	231
Zabalegi	33
Zulueta	204
Noain eta beste bizitoki batzuk (*)	6.477
Udalerriko biztanleria, guztira	7.566

(*) Noain, Ezperun, Oriz, Otano eta Iharnotz dira.

Populazioaren ehuneko 85 inguru Noainen bizi da, udalerriko hiriburuan.

Udalak hiru erakunde autonomo dauzka zerbitzu publikoak emateko: Kirol Patronatua, Etxe-Zaharra Kultur Patronatua eta Julián Gayarre Musika Eskolaren Patronatua.

2012ko ekitaldia ixtean, erakunde horien funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak 2012-12-31n
Udala	7.070.752	6.843.871	52
Kirol Patronatua	169.087	177.407	0
Kultur Patronatua	319.300	307.309	0
Musika Patronatua	581.204	564.688	18
Bateratzearen doitzeak	-655.616	-655.616	-
Bateratua, guztira	7.484.727	7.237.659	70

Udalak 655.616 euro eman dizkie, guztira, bere erakunde autonomoei. Hona xehetasunak:

- Kirolen Udal Patronatua, 140.000 euro.
- Etxe-Zaharra Kultur Patronatua, 253.350 euro.
- Julián Gayarre Musika Eskolaren Patronatua, 262.266 euro.

Gainera, Udalak ondoko mankomunitateetan hartzen du parte:

• Iruñerriko Mankomunitatea: haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren, hiri hondakin solidoak kudeatzearen eta eskualdeko hiri garraioaren zerbitzuak. Azken zerbitzu horrek 135.800 euroko gastua eragin dio Udalari.

- Noaingo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, 98.881 euroko gastua duena.

Bestalde, udalerriko kontzejuak guztira 54.000 euroko diru-laguntza jaso dute beren gastuak finantzatzeko.

Laburbilduz, zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taulan erakusten direnak dira:

Udal Zerbitzuak	Udala	Era-kunde autonomoak	Mankomunitatea	Zerbitzuen kontratuak
Zerbitzu administratibo orokorrak	X			
Udaltzaingoa	X			
Uraren ziklo integrala			X	
Hiri hondakinak			X	
Bidaiarien hiri garraio kolektiboa			X	
Gizarte zerbitzuak ematea			X	
Kultur etxea		X		
Musika Eskola		X		
Kirol instalazioak		X		
Otik 3 urtera bitarteko Haur Eskola				X
Lorezaintza				X
Agenda 21	X			
Hilerria	X			
Lorategiak				X
Udal instalazioen garbiketa				X
Kale garbiketa				X
Hirigintza	X			
Diru-bilketa exekutiboa	X			X

2013an, Udalak, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak, Animsa Sozietate Publikoak eta Kontuen Ganbarak elkarrekin egindako kostuen eta adierazleen sistema bat ezartzeko proiektua amaitu zen. Gaur egun, sistema horren tratamendu informatikoa egitea falta da. Hemendik gutxira, ganbera honek txosten bat eginen du Nafarroako toki entitateentzat ereduakoa den esperientzia honi buruz.

Toki entitateari 2012ko ekitaldian aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.
- 2/1995 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa.
- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileriaren Estatutuari buruzkoa.
- Uztailaren 2ko 11/2004 Foru Legea, Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzkoa.
- 6/2006 Foru Legea, Kontratu Publikoei buruzkoa, 1/2007 Foru Legeak toki-entitateei buruz ezarritako berezitasunekin.
- Ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea, Defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitatean moldatzen dituena.
- 38/2003 Lege Orokorra, diru-laguntzei buruzkoa.
- 35/2002 Foru Legea, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzkoa.

- Uztailaren 5eko 15/2010 Legea, merkataritza eragiketen berankortasunaren aurkako neurri buruzkoa.
- 2/2012 Lege Organikoa, Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa.
- 13/2012 Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzkoa.
- Uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretua, aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurri buruzkoa.
- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 270, 271 eta 272 Foru Dekretuak dira, zeinak Nafarroako Toki Administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.
- Udalaren 2012ko aurrekontuaren betetze-oinarriak eta gainerako barne arauak.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean, txostenaren helburuak azaltzen dira, eta hirugarrenean, berriz, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, Udalaren 2012ko kontu orokorrari buruz daukagun iritzia ematen dugu, eta bosgarrenean Udalaren egoera-orri garrantzitsuenen laburpena jaso dugu. Azkenik, seigarren atalean, Udalaren eta haren erakunde autonomoen antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta gomendioak bildu ditugu, arloz arlo.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik eskerrak ematen dizkiegu Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileei.

II. HELBURUA

Parlamentuaren eskaria betez eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Noain-Elortzibarko Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorraren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

- Ea Udalaren eta haren sozietate publikoaren 2012ko ekitaldiko urteko kontuek Udalaren egoeraren irudi zehatza erakusten duten alderdi nabarmen guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2012ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian eginiko eragiketen emaitzei dagokienez ere, aplikatzekoa den informazio finantzarioari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate-printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

- Udalak eta haren menpeko entitateek 2012an izandako jarduerari aplikatzekoa zaion lege-riaren betetze-maila.

- Udalaren eta haren menpeko enteen finantza-egoera 2012ko abenduaren 31n.

- Ganbera honek 2006ko fiskalizazio txostenean eman zituen gomendioak noraino aplikatu diren.

Txostenari erantsi zaizkio, halaber, egokitzat jotzen diren aholkuak, Udalak eta haren menpeko enteez ezarritako barne-kontrolako sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetu eta osatze aldera.

III. NORAINOKOA

Noingo Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorrak hauek ditu osagai nagusi:

- Entitatearen beraren eta haren erakunde autonomoen kontua: aurrekontuaren betetze-mailari buruzko egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaitza, diruzaintza-gerakina, egoera-balantzea eta emaitzen kontua.
- Kontu orokorraren eranskinak: diru-zaintzaren egoera-orria, zorraren egoera eta kontu-hartzailetzaren txostena.

Ez dira Udalaren eta haren erakunde autonomoen kontu bateratuak egiten. Aitortutako eskubideen eta betebeharren aurrekontu-likidazioaren laburpen bateratu bat baizik ez da aurkezten, kapituluka, bai eta aurrekontu-magnitute batzuen kalkulua ere.

2012an, aurrekontu-kontabilitatea kudeatzeko aplikazio informatikoaren hornitzailea aldatu zen, eta kontabilitaterako programa informatikoa bera bitan aldatu zen. Halaber, diru-bilketarako programak kudeatutako diru-sarrerak kontabilitate-sistemara automatikoki pasatzeko modua ezarri zen. Egitate horiek ardura berezia eskatu izan diete ukitutako udal zerbitzuei.

Udal kontabilitaterako programa informatikoaren aipatutako aldaketan ondorioz, kontabilitateko egoera-orri orokorrak –balantzea eta emaitzen kontua– zuzenean lortu dira aplikazio informatiko berritik, haien amaierako saldoetara aurkitutako gorabehera guztiak aldatu gabe ere; halaber, egoera-orri horiekin batera, kontu orokorrean ez da agertzen aurreko urteari buruzko informazioa.

Menpeko enteen kudeaketa ekonomikoa, aurrekontukoa eta kontabilitatekoa zuzenean egiten dute ente horietako langileek edo ente horiei atxikitakoek. Kirol Patronatuak Udalaren kontabilitate-programa bera aplikatzen du; Kultur Patronatuak eta Musika Patronatuak, berriz, beste programa bat erabiltzen dute.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz eta azterlan honen helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautapropa edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz egin da lana, laginen teknika edo kontusail nahiz eragiketa zehatz hautatuen berrikuspenera aplikatuz, besteren artean.

Zehazki, Udalari eta bere erakunde autonomoei dagokienez, berrikusi dira bai haien aurrekontuen egoera-orrien edukia eta koherentzia, bai aplikatutako oinarritzko prozedurak; eta ebaluatu dira antolaketa, kontabilitate eta barne kontroleko oinarritzko alderdiak.

Kontuen Ganberak Udalaren 2006ko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du. Txosten horretan, gomendio sail bat jaso zen, funtsean zuzenduta zeudenak arloen eta menpeko enteen arteko koordinazio-tresnak indartzera eta ezarritako barne kontroleko sistema bera ere indartzera.

Azterketa-lana auditoriako hiru teknikarik eta auditore batek osatutako taldeak egin du, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin. Landa-lana 2013ko urritik abendura bitartean egin zen.

IV. 2012ko KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA

Egin dugun lanaren irismenarekin bat, Noaingo Udalaren 2012ko ekitaldiko Kontu Orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzea, bai eta haren edukia ere, Udalaren ardura da, eta laburbilduta jaso da txosten honen V. atalean.

Gure iritzia eman aurretik, zehaztu beharrekoak dira 2012ko inguruabar bereziak, udal kontabilitatearen kudeaketan gertatu direnak, programa informatikoetan izan diren ondoko aldaketan eraginez.

Gure lanaren emaitza gisa, honako iritzi hau atera dugu:

IV.1. UDALAREN 2012ko KONTU OROKORRA

- Ez dago Udalaren eta haren erakunde autonomoen informazio bateraturik, ez bada aurrekontuaren likidazioaren laburpenari buruzko egoera-orri bat.

- Kontabilitateko egoera-orrien saldoak –balantzea eta emaitzen kontua– zuzenean lortu dira aplikazio informatikotik, saldoen koherentzia egiaztatzeko amaierako azterketa- eta berrikuspen-prozedurarik egin gabe.

- Udalaren ondasunen inbentarioa eguneratu gabe dago; hori dela eta, ezin izan dugu egiaztatu egoera-balantzeko ibilgetua arrazoizkoa den; 24,6 milioi eurokoa da saldo hori.

Gure iritziak, arestian aipatutako salbuespenen ondorioei dagokienez izan ezik, Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorrak, alderdi behinenetan, leialki irudikatzen ditu bere gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta bere eragiketen emaitzak, aplikatu daitezkeen finantzari buruzko informazio publikoaren arauzko esparruarekin eta, bereziki, bertan bildutako kontabilitateko printzipioekin eta irizpideekin bat.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Udalaren eta haren erakunde autonomoen jarduera ekonomiko eta finantzarioa, 2012ko ekitaldian, orokorrean, legezketasun printzipioaren arabera izan da salbu eta ordainsarien arloko eta aldi baterako langileak hautatzearen arloko ez-betetze batzuetan, txosten honetako VI.2 eta VI.8.1 ataletan adierazi bezala.

IV.3. UDALAREN ETA BERE ERAKUNDE AUTONOMOEN EGOERA EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA 2012ko ABENDUAREN 31n.

Kontu orokorrari buruzko salbuespenak, IV.1. atalean jasotakoak, kontuan hartuta, ondoren Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2012ko abenduaren 31ko finantza-egoerari buruzko ondorio nagusiak azaltzen ditugu.

Aitortutako betebeharren zenbatekoa 7,48 milioi eurokoa da, eta likidatutako eskubideena, berriz, 7,23 milioi eurokoa. Haien izaerari erreparatuta, gastu arruntek gastu guztien ehuneko 83 egiten dute; diru-sarrera arruntek, berriz, guztizkoaren ehuneko 93 egiten dute.

Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili diren eta nola finantzatu diren Udalaren eta haren erakunde autonomoen gastuen 100 euroko bakoitza:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantzabidea	Zenbatekoa
Langileak	35	Tributu bidezko diru-sarrerak	65
Bestelako gastu arruntak	47	Transferentziak	31
Kapitaleko gastuak	14	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	4
Finantza-zama	4		
	100		100

Hona Udalaren 2012rako aurrekontu bateratuaren betetzeari eta betetze horren 2011koarekiko alde-raketari buruzko datu ekonomikoak, eurotan:

Adierazleak eta magnitudeak	2011	2012	Aldearen ehunekoak, 2012/2011
Aitortutako betebeharrak	8.017.199	7.484.727	-7
Likidatutako eskubideak	7.733.529	7.237.658	-6
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	6.121.162	6.210.899	1
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	6.038.265	6.127.329	1
Kapital-gastuak (6. eta 7. kapituluak)	1.626.433	1.060.489	-35
Finantza-eragiketengatikoko gastuak (8. eta 9. kapituluak)	269.604	213.339	-21
Diru-sarrera arruntak (1etik 5era)	6.460.866	6.728.312	4
Tributu bidezko diru-sarrerak (1etik 3ra)	4.483.780	4.680.937	4
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	1.272.663	509.346	-60
Diru-laguntzen mendekotasuna (%)	35	31	
Zerga bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (%)	73	75	
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	-14.066	-33.730	-140
Aurrezki gordina	339.704	517.413	52
Finantza-zama (3tik 4ra)	352.500	296.909	-16
Aurrezki garbia	-12.796	220.504	1.823
Zorpetze maila (%)	5,46	4,41	
Zorpetze muga (%)	6,54	8,93	
Zorpetze-ahalmena (%)	1,08	4,52	
Zor bizia	3.911.710	3.698.372	-5
Zor bizia biztanleko	528	489	-7
Diru-sarrera arrunten gaineko zor bizia (%)	61	55	
Aurrezki gordinaren gaineko zor bizia	11,52	7,15	

2012an, Udalak eta haren erakunde autonomoek aurreko ekitaldian baino ehuneko zazpi gutxiago gastatu dute (0,53 milioi euro), batez ere inbertsioetan egindako gastuak behera egin duelako –2011n baino txikiagoa izan da ia zenbateko berean–.

Beste alde batetik, diru-sarrerak aurreko ekitaldian baino ehuneko sei gutxiago izan dira; hau da, 0,49 milioi euro. Beherakada hori, funtsean, inbertsioetarako kapital-transferentziak urritu direlako izan da, 2011n 0,82 milioi euro zirenak, 2012an 0,32 milioi izatera pasa baitira.

Gastu arruntek ehuneko bat egin dute gora 2011rekin alderatuta; nabarigaitzekoa da ondasun arrunten eta zerbitzuen kapituluak ehuneko sei egin duela gora.

Tributu bidezko diru-sarrerak, ordea, ehuneko lau egin dute gora. Alde hori, neurri handi batean, heldu da udal kontu-hartzaitzak egin dituen azterketa- eta ikuskatze-jardueretatik, eta eragin du diru-sarrerak 0,24 milioi handiagoak izatea. Oro har, diru-sarrera horiek gastu arrunten ehuneko 75 finantzatzeko dute.

Aurrekontu saldo ez-finantzarioa negatiboa da, 33.730 eurokoa, eta 2011n ere negatiboa izan zen, 14.066 eurokoa; horrek adierazten du diru-sarrera ez-finantzarioak ez direla izaera bereko gastuak finantzatzeko behar adinakoak.

Udalaren eta haren erakunde autonomoen aurrekontu-emaizta doitua honako taulan ageri dena da:

	(Eurotan)
2012 ekitaldiko aurrekontu-emaizta doitua	Zenbatekoa
Udala	318.010
Kultur Patronatua	- 7.451
Kirol Patronatua	8.321
Musika Eskola	-16.517

2012an, bai aurrezki gordinak, bai aurrezki garbiak balio positiboak dauzkate, 0,52 eta 0,22 milioioak, hurrenez hurren; eta nabarmen hobetu dira 2011n lortutako balioak. Hala eta guztiz ere, Udaleko kontu-hartzaileak kontuei buruzko bere txostenean adierazi duen bezala, aurreko zenbatekoetan sartzen dira aparteko izaera izan duten gastu eta diru-sarera batzuk; bada, haiek kenduz gero, 0,25 milioiko aurrezki gordina eta 42.306 euroko aurrezki garbi negatiboa lortuko litzateke.

Udalaren zorpetze-maila ehuneko 4,41ekoa da, eta ehuneko 8,93ko muga du; horregatik, hain zuzen, oraindik ere badu zorpetze berrietarako ahalmen ekonomikorik.

Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina, edo Udalak eta haren erakunde autonomoek hurrengo ekitaldiko gastuak finantzatzeko daukaten ahalmenaren adierazlea, honako taulan ageri da:

(Eurotan)	
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina, 2012an	Zenbatekoa
Udala	698.183
Kultur Patronatua	16.295
Kirol Patronatua	7.895
Musika Eskola	15.012

Epe luzeko zorra 3,70 milioi eurokoa zen 2012an; 2011n, berriz, 3,91 milioioa izan zen. Zor hori –zeina 489 eurokoa baita biztanle bakoitzeko– erakunde honen diru-sarrerara arrunt guztien ehuneko 55 da; ehuneko horrek ez du gainditzen gaur egun zor berriak hartzeko dagoen legezko muga (ehuneko 110). 2012an lortutako aurrezki gordinaz baliatuz, 7,15 urte beharko liriteke Udalak gaur egun duen zorrari aurre egiteko.

Laburbilduz, aurreko urtearen aldean gastuak eta diru-sarrerak gutxitu diren arren –ehuneko zazpi eta sei, hurrenez hurren– gutxitze hori funtsean inbertsioetan eta haien finantzaketan gertatu dira. Izaera arrunteko gastuak eta diru-sarrerak 2012an gehiago izan dira 2011n baino. Magnitude garrantzitsuenen jokaerari dagokionez, nolabaiteko hobekuntza sumatzen da 2011ko balioekin alderatuta, aurrekontu-saldo ez-finantzarioaren kasuan izan ezik. Epe luzeko zorrak ehuneko bost egin du behera.

Bestalde, udalerriak, azken urte hauetan, hirigintza-garapen oso garrantzitsua izan du eta populazioa ere nabarmen handitu da (2005 eta 2013 bitartean, ehuneko 74 egin du gora); garapen horren emaitza gisa, Udalak azpiegituretan eta ekipamenduetan inbertsioak egiteko plan handi bat egin zuen, 16 milioi euro inguru aurreikusten zituena. Egungo krisi ekonomikoko egoera eta hirigintza-planeamendu indardunaren agorpena funtsezko eragina izaten ari dira entitatean. Beraz, epe ertainera bideragarritasun ekonomiko bermatzeko helburuarekin, beharrezkoa da plan ekonomiko-finantzario bat onartzea, alde batetik, gastu arruntei eusteko, eta, beste alde batetik, ohiko baliabideak sortzeko gaitasun handiagoa edukitzeko. Hori guztia ahaztu gabe kudeaketa hobetzeko neurriak ezarri behar direla –jada hasitakoan ildotik–, besteak beste honako alderdi hauetan: langileen eta plantillen kudeaketa, tasak eta prezioak zerbitzuaren kostuaren arabera egokitzea, zenbait zerbitzuren neurria aztertzea, derrigorrezkoak izan gabe ematen diren zerbitzuek beren burua finantzatzea eta Udalaren hirigintza-planeamendu berria egitea.

Fiskalizazioaren iritzia ezertan ukitu gabe, Kontuen Ganbera honek nabarmendu nahi ditu egungo krisi ekonomikoko arriskuen ondorioz dagoen egoera, egoera horrek Udalaren kontu publikoen gainean dituen eragin finantzarioak eta aurrekontu-egonkortasunari buruzko arauetatik heldu diren aurrekontu-betebeharrak. Testuinguru honetan, aurrekontuen plangintzan eta exekuzioan zorrotz jokatzeko eta funts publikoen erabilera gardentasuna izateak herritarren beharrek bat datorren kudeaketa publiko baten oinarritzko baldintza izan behar dute.

Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea.

Kontabilitate nazionalaren irizpideei jarraituz, ikusten da 2012an, Noingo Udalak ez duela bete aurrekontu-egonkortasunaren helburua, zeren eta 112.251 euroko finantzaketa beharrak (defizita) izan baititu. Hona horri buruzko taula (eurotan):

Aurrekontu-egonkortasuna	Zenbatekoa 2012an
Finantzaz besteko diru-sarrera bateratuak	7.237.658
Finantzaz besteko gastu bateratuak	7.271.388
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	- 33.730
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioan eginiko doitzeak	
Zergen bidezko diru-bilketa	- 84.037
Sortutako korrituak	5.516
Finantzaketa-beharra (defizita)	-112.251

Udaleko kontu-hartzaitzaren txostenean esaten da, indarreko legediak dioen bezala, Osoko Bilkurak plan ekonomiko-finantzario bat onetsi beharko duela egoera aurrekontu-egonkortasunera birbideratzeko, kontabilitate nazionalaren terminoei dagokienez. Plan hori onetsi zen eta 2013ko azaroan igorri zitzaion Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusira, eta bertan esaten da antzemandako defizita ez dela egiturazkoa; hori dela eta, ez da aparteko doikuntza-neuririk proposatzen.

2012an, finantza-iraunkortasunaren printzipioa bete egin da, zeren eta zorraren bolumenak diru-sarrera arruntetan egiten duen bolumenaren ehuneko 55ekoa baita, ezarrita dagoen ehuneko 110aren gehieneko mugaren azpitik.

IV.4. GANBERA HONEK 2006ko FISKALIZAZIO TXOSTENEAN EMAN ZITUEN GOMENDIOAK NORAINO BETE DIREN.

Indarrean jarraitzen dute, txosten honetako VI. atalean esaten den bezala, Udalaren 2006ko kontu orokorreari buruz emandako lehentasunezko gomendioek:

- *Antolamenduzko egitura egoki bat ezarri behar da, non kideen ardurak eta eskumenak idatziz zehazten diren, eta hirigintza-kudeaketarako eta Udalarekin informazioa bideratzeko oinarrizko prozedurak ezarri behar dira.*

- *Udal ondasunen inbentarioa gaurkotzea.*
- *Udalaren eta patronatuen egoera-orri bateratuak egitea.*
- *Lurzoruaren Udal Ondarearen kudeaketa independentea eta bereizia egitea.*
- *Kultura eta kirol patronatuak Udalaren zerbitzu bihurtzeko aukera aztertzea.*

V. UDALAREN 2012ko KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Ondoren, 2012ko kontabilitatearen egoera-orri garrantzitsuenak azaltzen ditugu, Udalak eginak:

V.1. UDALAREN ETA ERAKUNDE AUTONOMOEN 2012ko BETETZE BATERATUAREN EGOERA-ORRI LABURTUA**GASTUAK**

		(Eurotan)
Kapitulua	Izendapena	Aitortutako betebeharrak
1	Langile-gastuak	2.611.798
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	2.974.936
3	Finantza-gastuak	83.570
4	Transferentzia arruntak	540.595
6	Inbertsio errealak	1.019.207
7	Kapital-transferentziak	41.282
9	Finantza-pasiboak	213.339
Guztira		7.484.727

DIRU-SARRERAK

		(Eurotan)
Kapitulua	Izendapena	Aitortutako eskubideak
1	Zuzeneko zergak	3.405.766
2	Zeharkako zergak	305.500
3	Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	969.670
4	Transferentzia arruntak	1.943.631
5	Ondarearen bidezko diru-sarrerak eta herri-aprobetxamenduak	103.745
6	Inbertsio errealak besterentzea	184.265
7	Kapital transferentziak eta bestelako kapital diru-sarrerak	325.081
Guztira		7.237.658

V.2. UDALAREN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA 2012an

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

(Eurotan)

Gastuen kapituluak	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko kredituak	Aitortutako betebehargarbiak	Betetzearen ehunekoa
1 Langile-gastuak	2.277.335	2.548	2.279.882	2.083.735	91
2 Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak	2.504.438	106.809	2.611.247	2.570.921	98
3 Finantza-gastuak	99.999	6.500	106.499	83.570	78
4 Transferentzia arruntak	1.115.646	121.702	1.237.347	1.061.516	86
6 Inbertsio errealak	1.009.524	698.672	1.708.196	1.016.389	59
7 Kapital-transferentziak	44.500		44.500	41.282	93
9 Finantza-pasiboak	212.553	785	213.339	213.339	100
	7.263.995	937.016	8.201.010	7.070.752	86

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

(Eurotan)

Diru-sarreraren kapitulua	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako esku-bide garbiak	Betetzearen ehunekoa
1 Zuzeneko zergak	3.156.708		3.156.708	3.405.766	108
2 Zeharkako zergak	408.855		408.855	305.500	75
3 Tasak eta bestelako diru-sarrerak	685.741		685.741	664.737	97
4 Transferentzia arruntak	1.795.917	3.243	1.799.160	1.856.459	103
5 Ondarezko diru-sarrerak eta herri-lurren proba.	90.925		90.925	103.673	114
6 Inbertsio errealak besterentzea	41.212	133.846	175.058	182.654	104
7 Kapital-transferentzia eta beste eragiketa batzuk	1.084.637	81.631	1.166.267	325.081	28
8 Finantza-aktiboak		718.296	718.296		0
	7.263.995	937.016	8.201.010	6.843.870	83

V.3. UDALAREN 2012ko AURREKONTU-EMAITZA

(Eurotan)

Kontzeptua	2011ko ekitaldia	2012ko ekitaldia
Aitortutako eskubide garbiak	7.313.340	6.843.871
Aitortutako betebeharrak	7.492.388	7.070.752
Aurrekontu-emaiza	-179.048	-226.881
Doikuntzak		
Finantzaletaren desbideratze positiboa	5.122	28.232
Finantzaletaren desbideratze negatiboa	157.571	33.636
Diruzaintza-erakinarekin finantzatutako gastuak	198.773	539.487
Aurrekontu-emaiza doitu	172.174	318.010

V.4. UDALAREN DIRUZAINZTA-GERAKINA 2012ko ABENDUAREN 31n

(Eurotan)

Kontzeptua	2011ko ekitaldia	2012ko ekitaldia
+ Kobratzeko dauden eskubideak	798.210	993.471
(+ Diru-sarreraren aurrekontua: Aurtengo ekitaldia)	822.857	742.157
(+ Diru-sarreraren aurrekontua: Itxitako ekitaldiak)	1.469.619	1.253.211
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	78.262	117.378
+ Ordainketen itzulketak	0	209
- Bilketa zaileko eskubideak	1.572.529	1.119.485
- Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	0	0
- Ordaintzeko dauden betebeharrak	1.380.038	1.195.267
+ Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	960.929	794.947
+ Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	158.293	128.190
+ Diru-sarreraren itzulketak	26.873	28.361
- Aplikatzeko dauden gastuak	0	0
+ Aurrekontuz kanpoko gastuak	233.942	243.769
+ Diruzaintzako funts likidoak	1.141.334	903.537
+ Finantzaletaren desbideratze metatu negatiboak	160.588	45.104
Diruzaintza-gerakina, guztira	720.094	746.844
Diruzaintza-gerakina, finantzaletaren duten gastuak direla-eta	2.500	48.661
Diruzaintza-gerakina, baliabide atxikiak direla-eta	0	0
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	717.594	698.183

V.5. UDALEKO EGOERA-BALANTZEA 2012ko ABENDUAREN 31n

AKTIBOA

		(Eurotan)
Deskribapena		2012
A	Ibilgetua	24.607.738
	Ibilgetu materiala	23.114.672
	Ibilgetu ez-materiala	935.966
	Erabilera orokorrerako azpiegitura eta ondasunak	353.171
	Herri-ondasunak	200.565
	Finantza-ibilgetua	3.364
C	Zirkulatuzaileen	3.016.493
	Zordunak	2.112.956
	Finantza-kontuak	903.537
	Aktiboa, guztira	27.624.231

GARBIA ETA PASIBOA

		(Eurotan)
Deskribapena		2012
A	Funts berekiak	22.713.810
	Ondarea eta erresebak	12.553.017
	Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	388.421
	Kapitaleko diru-laguntzak	9.772.372
C	Epe luzeko hartzekodunak	3.715.154
	Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailuak	3.715.154
D	Epe laburreko hartzekodunak	1.195.267
	Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuz kanpokoak	1.195.267
	Garbia eta pasiboa, guztira	27.624.231

V.6. UDALAREN 2012ko EMAITZA EKONOMIKOA

Ekitaldiko emaitza arruntak

(Eurotan)

ZOR		HARTZEKO	
Deskribapena	2012	Deskribapena	2012
3 Hasierako izakinak	0	3 Bukaerako izakinak	0
39 Izakinen balio-galeraren ondoriozko zuzkidura	0	39 Izakinen balio-galeraren ondoriozko zuzkidura	0
60 Erosketak	0	70 Salmentak	249.990
61 Langile-gastuak	2.084.389	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	501.061
62 Finantza-gastuak	83.570	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	2.734.945
63 Zergak	0	73 Errentaren gaineko zerga arruntak	585.650
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	2.600.152		
65 Gizarte prestazioak	0	75 Ustiapenerako diru-laguntzak	1.134
66 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	76 Transferentzia arruntak	1.856.459
67 Transferentzia arruntak	1.061.516	77 Kapitalaren gaineko zergak	390.672
68 Kapital-transferentziak	41.282	78 Bestelako diru-sarrerak	16.224
69 Amortizazio eta horniduretarako zuzkidura, ekitaldikoa	0	79 Beren helbururako aplikatutako hornikuntzak	0
80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo hartzekoduna)	465.226	80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0
Guztira	6.336.135	Guztira	6.336.135

Ekitaldiko emaitzak

(Eurotan)

ZOR		HARTZEKO	
Deskribapena		Deskribapena	
80 Ekitaldiko emaitza arruntak	0	80 Ekitaldiko emaitza arruntak	465.226
82 Ohiz kanpoko emaitzak	1.537	82 Ohiz kanpoko emaitzak	0
83 Balore-zorroaren emaitzak	0	83 Balore-zorroaren emaitzak	0
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	75.268	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	0
89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	388.421	89 Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	0
Guztira	465.226	Guztira	465.226

VI. UDALARI ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEI BURUZKO IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondotik, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkaturik, Ganberaren iritziz Udalak eta bere erakunde autonomoek beren antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriei buruzko iruzkin eta gomendio nagusiak emanen ditugu.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

2012ko ekitaldiko aurrekontuari 2012ko martxoan eman zitzaion behin betiko onespena. Bestalde, Udalaren 2012ko kontu orokorra 2013ko abenduan onetsi zen.

Udalaren ondasunen inentarioa laurogeita hamarreko hamarkadaren amaieran egin zen eta ez da gaurkotu.

Ez dago jasota fakturen sarrera-erregistro bat dagoenik, zeinak, besteak beste, aukera emanen lukeen egiaztatzeko hornitzaileentzako ordainketak legedi indardunean ezarritako epean egiten direla.

Ez da ikusi 2012koak izan eta 2013an kontabilizatutako kantitate handiko fakturarik.

Kutxako edo eskudiruko kontua erabiltzen da zenbateko txikiko gastu eta diru-sarreretarako, zeinentzat ez baita operatiboa banku-transferentzia bat egitea; eragiketa horiek eskuz idazten dira kutxako liburuan eta sei hilez behin kontabilitate informatizatuan transkribatzen dira. 2013an, Kontu-hartzailetzak zirkular bat egin du, kutxako edo esku-diruko kontu horren funtzionamendua eta kontrolak arautzeko.

2012ko abenduaren 31n, Udalaren epe luzeko zorra 3,7 eurokoa da, eta honako amortizazio-taula dauka (eurotan):

Ekitaldia	Amortizazioa	Ehunekoa	Ehuneko metatua
2013	221.277	5,98	5,98
2014	224.332	6,07	12,05
2015	225.533	6,10	18,15
2016	226.755	6,13	24,28
2017-2020	919.708	24,87	49,15
2021-2025	1.180.001	31,91	81,06
2026-2029	700.766	18,94	100
Guztira	3.698.372	100	

Oharra: Zorraren egoera-balantzea 3.715.154 eurokoa da, zeren eta kontabilizatzean akats bat izan baita.

2009tik, Udalak ez du zorpetzerik hartu.

Zorpetzearen bolumena justifikatuta dago Udalak azken urteetan egin duen inbertsio-ahalegina dela eta, zeina 16 milioi euro ingurukoa baita; hurrengo taulan aipatzen ditugu egin diren azpiegitura eta ekipamendu garrantzitsuenak, bai eta haien zorpetze bidezko kanpoko finantzaketaren ehunekoa ere:

Inbertsioa	Inbertsioa, guztira	Kanpoko finantzaketaren ehunekoa
Kiroldegia	4.614.026	22
Udaletxea	3.288.953	20
Kultur etxea	1.903.968	71
Musika Eskola	1.618.216	0
Lur azpiko aparkalekua	1.582.918	43
0-3 urteko haur eskola	1.059.016	0
ZENTZUMENEN PARKEA	641.507	0
Errege kalean, Iruñerria kalean eta Nafarroa kalean egindako obrak	469.599	67
Gizarte-etxea	368.502	0
Liburutegia	328.050	92
Sarria (udaltzaingoa, lorezaintza-biltegia, zerbitzu anitzak)	204.479	0
Gazteentzako etxabea	152.716	41

Azkenik, gure iritziz, udalerrria osatzen duten kontzejuen kontuak eranskin berezi bezala sartu beharko liriteke, informazioa emate aldera, Udalaren kontu orokorraren eranskin gisa.

Hona gure gomendioak:

- *Udalaren aurrekontu orokor eta bakarra eta kontu orokorra indarrean dagoen legediak ezartzen dituen epeen barruan onestea.*
- *Udalaren eta erakunde autonomoen egoera-orri bateratu guztiak egitea, legedia indardurak ezarritakoaren arabera.*
- *Kontabilitate orokorraren kontuetako saldoak aztertzen eta, kasua bada, erregularizatzen amaitzea.*
- *Udalaren ondasun eta eskubide guztien inbentario balioztatua gaurkotu eta onestea.*
- *Inbentarioko altak eta bajak kontrolatzeko eta jarraitzeko sistema bat ezartzea, haren etengabeko gaurkotzea eta kontabilitateko ibilgetuarekin duen lotura bermatu eta bideratzeko.*
- *Ordainketa-epeak kontrolatze aldera, hornitzaileei ordaintzeko prozeduran sartzea fakturak jasotzeko datari buruzko erregistroa.*

Azkenik, hurrengo tauletan, Udalaren aurrekontuaren likidazioaren bilakaera erakusten dugu, 2006tik hasi eta 2012ra bitartekoa.

GASTUAK	2012	2011	2010	2009	2008	2007	2006
Langileak	2.083.735	2.030.627	1.996.266	2.005.959	2.086.626	1.971.755	1.918.664
Ondasun arruntan erosketak eta zerbitzuak	2.570.921	2.368.110	2.460.501	2.357.958	2.077.029	1.915.350	1.788.918
Finantzarioak	83.570	82.899	84.810	137.470	141.070	72.811	13.870
Transferentzia arruntak	1.061.516	1.129.340	1.216.957	1.265.700	1.238.301	1.131.953	1.055.435
Inbertsioak	1.016.389	1.571.634	675.949	2.034.462	3.293.607	4.855.731	3.675.089
Kapital-transferentziak	41.282	40.175	43.607	41.110	298.723	565.183	449.406
Finantza-pasiboak	213.339	269.604	800.250	181.837	157.879	80.617	109.039
GUZTIRA	7.070.752	7.492.388	7.278.338	8.024.496	9.293.234	10.593.401	9.010.420

DIRU-SARRERAK	2012	2011	2010	2009	2008	2007	2006
Zuzeneko zergak	3.405.766	3.268.763	3.481.448	3.011.811	3.536.472	2.544.752	2.765.388
Zeharkako zergak	305.500	192.864	234.072	628.885	1.436.066	1.106.252	836.241
Tasak eta bestelako diru-sarrerak	664.737	708.281	906.980	829.450	575.561	637.498	528.078
Transferentzia arruntak	1.856.459	1.776.946	1.792.898	1.651.497	1.537.492	1.365.897	1.321.271
Ondare bidezko diru-sarrerak	103.673	93.823	69.308	73.667	65.679	62.654	54.078
Inbertsioen besterentzea	182.654	450.580	518.644	671.697	532.499	112.343	64.319
Kapital-transferentziak	325.081	822.083	558.430	1.453.461	1.440.880	1.675.157	2.851.121
Finantza-pasiboak	0	0	0	1.336.285	2.779.601	0	76.776
GUZTIRA	6.843.871	7.313.340	7.561.780	9.656.753	11.904.251	7.504.553	8.497.272

Ikus daitekeen bezala, aitortutako betebeharrak gorenko mailara iritsi ziren 2007an, 10,6 milioirekin; gero, gastu-bolumena murriztu zen, bereziki inbertsioen kapituluan. Aitortutako eskubideei dagokienez, nabarmendu behar dugu 2008an diru-sarreraren bolumena handia zela, 11,9 milioioa; 2008an eta 2009an zorpetze bidez baliabide ugari harrapatu zirela; kapital-transferentziek eta kapitaleko beste diru-sarrera batzuek eta zeharkako zergek nabarmen egin dutela behera eta zuzeneko zergek gora egin dutela.

VI.2. UDALEKO LANGILE-GASTUAK

Udalaren langileriaren arloko gastua 2,08 milioi eurokoa da. Kopuru horrek Udalaren gastu guztien ehuneko 29 egiten du. Betetze-maila ehuneko 91koa da.

2011ko ekitaldiarekin alderatuta, langile-gastuak ehuneko hiru egin du gora, ondoko taulan erakusten den bezala (eurotan):

Langile-gastuak	2011n aitortutako betebeharrak	2012an aitortutako betebeharrak	Aldearen ehuneko, 2012/2011
Goi-karguak	54.006	50.929	-6
Kabineteko behin-behineko langileak	62.304	98.243	58
Funtzionarioak	1.156.598	1.082.091	-6
Lan-kontratudunak	166.483	225.128	35
Bestelako langileak	14.393	5.480	-62
Kuota sozialak	576.843	621.864	8
Langileak, guztira	2.030.627	2.083.735	3

Hona aldaketa nagusien justifikazioa:

- Behin-behineko langileak-izendapen askekoak: 2012an, lanpostu baterako ekitaldi osoko ordainsariak jasotzen dira; 2011n, aldiz, irailtik aurrerakoak jaso ziren, orduan izendatu baitzitezuten.
- Langile funtzionarioak: kopuruak behera egin izanaren arrazoia dira haien ordainsarrietan egin diren lege-doitzeak eta 2012an jardunean bi pertsona gutxiago egotea.
- Lan-kontratadun langileak: kopuruak gora egin izanaren arrazoia da 2012an bost pertsona kontratatu zirela aldi baterako gizarteratze programetan.

VI.2.1. Udal langileak

2012ko plantilla organikoa urte horretako abenduko osoko bilkura batean onetsi zen hasiera batez. Gero, 2012ko maiatzean, plantilla hori aldatu zen, besteak beste Udalaren eta Udaleko langileen artean 2012tik 2015era arteko eperako sinatutako enplegu-baldintzei buruzko hitzarmena jasotzeko.

47 lanpostu jasotzen ditu, honako xehetasunen arabera:

	Guztira beteta	Dauden lanpostuak	Eszedentzia	Lanpostu hutsak	Betetako lanpostu hutsak
Funtzionarioak	36	30	2	4	4
Lan-kontratadunak	9	-	-	9	8
Izendapen askekoak-behin-behinekoak	2	2	-	-	-
Guztira	47	32	2	13	12

Behin-behineko lanpostuak-izendapen askekoak dira aholkulari juridikoa eta udaltzaingoko bu-
rua.

2012ko abenduaren 31n, Udalean 52 pertsonak egiten dute lan, aurreko ekitaldian baino lau gehiago, honako taulan ikusten den bezala:

Langileak	2011	2012
Funtzionarioak	32	32
Kontratu administratiboa dutenak	9	10
Lan kontratupekoak, aldi baterako	5	8
Izendapen askekoak-behin-behinekoak	2	2
Guztira	48	52

Aurreko langile horiek honako udal arloei daude atxikiak:

Arloak	2012ko pertsona kopurua
Aholkularitza Juridikoa	1
Zerbitzu orokorrak	18,5
Udaltzaingoa	14
Kultura	2
Kirolak	2,5
Obrak eta hirigintza	9
Babestutako enplegu soziala	5
Guztira	52

A eta B mailetako izendapen askeko langileak bederatzi dira, eta Udaleko langile guztien ehuneko 19 egiten dute, gizarte sustapeneko langileak kenduta.

Gastu horiek aztertuta ondorioztatzen da, oro har, ordaindutako ordainsariak aritutako lanposturako ezarritakoak direla, egindako atxikipenak egokiak direla eta langile-gastuak behar bezala kontabilizatuta daudela.

Egindako lanaren ondorioz honako alderdi hauek azpimarratu nahi ditugu:

- Plantilla organikoaren aurkezpena eta langileen zerrenda ez zaizkio guztiz egokitzen araudian ezarritakoari. Hartara, lanpostuak ez dira zorrotasunez definitzen beren izaeraren arabera, eta zerrenda izendunean ez da bereizten lanpostu horiek hornitzeko modua. Egoera horri konponbidea emanen zaio 2014ko plantillan.

- Ez da gaurkotu enplegatuek bete beharreko funtzioak arautzen dituen erregelamendua.

- Araupetze orokorraz gainera, honakoak dira Udaleko langileen lan baldintzei buruzko arauak: funtzionarioentzako eta administrazio-kontratuak dutenentzako udal erabakia, 2012-2015 aldirakoa, Osoko Bilkurak 2012an onetsita; lan-kontratudun langileen kasuan, berriz, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan indarrean dagoenera jo beharra dago.

- 2012an, langileen lansariak izoztu ziren eta ez zitzairen ordaindu abenduko aparteko soldata. Azken neurri horrekin izandako gastu txikiagoa 98.999 eurokoa da.

- 2012ko udal erabakian, C, D eta E maileri atxikitako langileentzako osagarrietan zenbait igoera aurreikusita zeuden, baina haiek indarrak gabe utzi dira bai ekitaldi horretan, bai 2013an. Hala eta guztiz ere, zenbait lanpostuk 2012rako igoera batzuk izan dituzte beren osagarrietan, baina ez dago txosten teknikorik haiek behar adina bermatzen dituenik, nahiz eta plantillarekin batera ageri den testuan nolabait ere justifikatzen diren.

- Aldi baterako langileen hautapena enplegu zerbitzu publikoen bitartezko deialdien bidez gauzatzen da. Hala eta guztiz ere, aztertutako laginean ikusten da alde aurretik baldintza batzuk jartzen direla: udalerrian/eskualdean errolatuta egotea, administrazio publikoetan zenbait urtez zerbitzuan aritu izana –bi eta bost urte bitarte– edo garatu beharreko lanpostuari dagokionaz gogoko titulazioa eskatzea. Bada, baldintza horiek eragina izan dezakete enplegu publikoan sar-

tzeko berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioetan. Gure iritziz, baldintza horiek kasuko hautapen-prozesuan baloratu beharreko merezimendu gisa jaso litezke.

- Ikusten dugu aldi baterako zenbait lanpostutan ez dela beti betetzen plantillan jasotako kontratazio araubidea –lan-kontratua ala administrazio-kontratua–. Praktikan, aplikatu beharreko araubidea ez da sendoa.
- Nominak Udalak kudeatzen ditu gestoria baten laguntzarekin; azken hori arduratzen da, funtsean, haiek materialki egiteaz –Udalak berak ematen dion informazioaren arabera– eta Gizarte Segurantzarekiko izapideak egiteaz. Gestoria horren lanak 9.853 euroko gastua ekarri du 2012an.
- PFEZaren inongo atxikipenik ez da doitu, nahiz eta ordainsariak ekitaldian zehar aldatetarik izan dituzten.
- Formalki langileen espedienterik ez badago ere, bai gordetzen eta kontrolatzen da halakoe-tan jasota egon beharko lukeen informazio guztia.

VI.2.2. Udaltzaingoa

¹Udaltzaingoaren langile-multzoa 2012an 14 langilek osatzen dute; honako hauek daude: buru bat –izendapen askeko kargua–, hamar polizia eta hiru polizia-laguntzaile. Biztanle bakoitzeko 1,72ko ratioa dago.

Udaleko langile guztien ehuneko 27 egiten dute eta haien ordainsariak guztizkoaren ehuneko 32 dira, gizarte segurantzaren zamak kontuan hartu gabe.

Ordainsarien guztizkoan –0,5 milioi euro inguru–, ehuneko 20 izaera aldakorrekoa da (jai egunak, gaueko orduak eta aparteko orduak). Batez beste, polizia bakoitzak kontzeptu horiek direla-eta urtean 7.781 euro jaso ditu, udaltzaingoko burua alde batera utzita, zeren eta ez baititu jasotzen horrelako ordainsariak; 2012an, polizia bakoitzeko urteko batez besteko balioak, kontzeptu horiei dagozkienak, honakoak dira:

- Jaiegunetako lanaldiak: 62 lanaldi, ordainpeko 96 lanaldiri dagozkionak.
- Gaueko orduak, 599 ordu.
- Aparteko orduak, 19 ordu.

Ordainsari aldakor horiei dagokionez –2012-2015 aldirako udal akordioan, Osoko Bilkurak 2012ko otsailean onetsitakoan, jasota daude–, ikusten dugu Langileen Estatutuak ezarritako araudiaren aurkakoak direla, honako arrazoiak direla eta:

- Ondorio guztietarako larunbata jai egun gisara hartzen da, estatutu horretan ezarritakoaren aurka.
- Behin 29 jaiegunetako lanaldiak gaindituta, jaiegunetan egindako ordu bakoitzarengatik ordainsaria bikoiztu egiten da; estatutuan, berriz, muga 33 lanegunetan dago jarria eta ordu bakoitzeko ordainsaria % 50 handiagoa da.

Langileen arlo honi guztiari dagokionez, hona gure gomendioak:

- *Plantilla organikoa egin eta aurkeztea arau indardunetan ezarritakoaren arabera.*
- *Lanpostu bakoitzak garatu beharreko eginkizunak, lan zama eta lan zama horri aurre egiteko behar diren langileak arautzen eta definitzen dituen erregelamendua gaurkotzea.*
- *Ordainsari osagarrietan egiten diren igoera guztiek behar bezala justifikatuta egon behar dute behar den dokumentazioan eta txostenetan.*
- *Aldi baterako langileen hautapena berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipio oinarrikoak errespetatuz egin beharra dago.*

¹ 2013ra arte beteta dago.

- *Tokiko polizia aplikatzekoa zaion ordainsari-araubide aldakorra aztertzea eta arau indardunen arabera egokitzea.*

VI.2.3. Udalbatzako kideen ordainsariak:

Udalbatzako kideen ordainsariak 2012an 50.602 euroko gastua eragin dute, 2011n baino ehuneko 6 gutxiago.

Ordainsari horiek 2011ko uztaileko osoko bilkuran erabakitakoaren arabera ordaintzen dira. Hartan ezartzen da organo parekideetara joateagatik 540 euroko zenbateko gordina ordainduko dela saio bakoitzeko; halaber, esaten da zinegotzi bakoitzak hiruhileko bakoitzean jaso beharreko gehieneko zenbatekoa 540 eurokoa izanen dela, salbu eta alkatearen kasuan -4.950 euro ezarri da gehieneko kopuru gisa- eta Tokiko Gobernu Batzarreko kideen kasuan -1.140 euro-. Zenbateko horiek 2012an gaurkotu ziren 2010eko abendutik 2011ko abendura KPIak izandako desbideratzearen arabera, eta kasuko aktekin justifikatuta daude. PFEZaren atxikipena egin behar zaie.

2012an, zinegotzi guztiek gehieneko kopurua jaso zuten.

Gero, 2013ko urrian, Osoko Bilkurak aurreko sistema aldatu zuen, eta honakoa ezarri:

- Alkatearen arduraldi eskusiboa aitortzen da, urteko 41.000 euroko ordainsari gordinarekin.
- Organo kolegiatuetara joateagatik zenbatekoa saio bakoitzeko 75 euro gordinekoa da, hiruhileko muga batekin, 787,50 eurokoa; eta Gobernu Batzarreko kideen kasuan, muga 1.237,50 eurokoa da. Puntu hori deuseztatu egin zen 2013ko azaroko Osoko Bilkuran; hori dela eta, aurreko araupetzeak indarrean jarraitzen du.

Gomendatzen dugu zinegotzien ordainsarien sistema egoki erregula dadila eta hura Udalak berak ezarri nahi duen ereduaren arabera izan dadila.

VI.3. UDALAREN ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN EGINDAKO GASTUA

Aurrekontuko 2. kapituluko gastuak 2,57 milioi euro egiten dute guztira, eta guztizko gastuaren ehuneko 36 dira. Betetze-maila ehuneko 98koa da.

2011rekin alderatuta, ehuneko 9 egin du gora, honako xehetasunena arabera (eurotan):

Ondasun arruntak eta zerbitzuak	2011n aitortutako betebeharrak	2012an aitortutako betebeharrak	Aldearen ehuneko, 2012/2011
Errentamenduak	857	879	3
Konponketak, mantentze-lanak eta kontserbazioa	680.484	657.094	-3
Materiala, hornidurak eta bestelakoak	1.668.802	1.896.544	14
Zerbitzua dela-eta emaniko kalte-ordainak	724	654	-10
Argitalpenak	17.243	15.750	-9
2. kapitulua, guztira	2.368.110	2.570.921	9

Aurrezteko tresnak sartu diren arren, bereziki garbiketaren, lorategien mantentzearen eta isunen kudeaketaren arloetan, kapitulu honetako gastua, 2011koarekin alderatuta, ia 200.000 euro handiagoa izan da. Igoera hori justifikatuta dago, funtsean, Udalak Musika Eskola garbitzeko gastuak bere gain hartu dituelako, laguntza juridikoan gastu handiagoa izan delako, elektrizitatearen fakturak erregularizatu direlako eta gizarteratze arloan kontratatutako langileen eskulanerako materialak izan duen kostuarengatik.

Udalak erosketak egiteko sistema 2013an arautu zuen, udal kontu-hartzaitzak egindako prozedura baten bitartez.

Kapitulu honetako gastuen lagin baten gainean egindako azterketari buruz, honako alderdiak adierazi behar ditugu:

- Laguntza juridikoa. 2012an 82.148 euroko gastua izan da. Funtsean heldu dira prozesu judizialekin lotutako minutetatik. Guztizko kopuru horretatik, 67.584 euro profesional bakar bati ordaindu zaizkio, baina ez dago jasota inongo hautapen prozedurarik egin denik horretarako. Hala eta guztiz ere, zehaztu behar dago 2012an garrantzi handiko zenbait prozedura judizial batera tokatu direla, aparteko izaeraz.

Aztertutako epai nagusiak direla eta, honakoa azpimarratu behar dugu:

a) Musika Eskola eraikitzekeko prezioen berrikuspena. Udalak eraikuntza-enpresak eskatutako prezio-berrikuspena, 89.715 eurokoa, errefusatu zuen -28.880 euro baizik ez zituen halakotzat aitortu-, eta, aldi berean, 24.791 euroko zehapena ezarri zion exekuzioan izandako atzerapenarengatik. Enpresak Udalaren egintza horren aurkako errekurtsioa aurkeztu zuen, eta epaitegiek arrazoia eman zioten. Epaiak jotzen du Udalak, berrikuspenaren kalkuluetan, ez zuela kontuan izan kontratuaren exekuzioaren aurrekontu osoa, eta zehapena ez zegoela justifikatuta, zeren eta ezarri baitzen obra amaituta zegoenean. Atzerapenaren arrazoiak ezin zitzaion eraikitzaileari egotzi, eta, gainera, kontratua aldatzerakoan, ez zitzaion berariaz ezarri amaitzeko beste data bat. Laburbilduz, egoerak honako gastuak ekarri dizkio Udalari:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Prezioen berrikuspena (aurrekontuko 6. kapitulua)	89.715
Defentsa juridikoa	5.279
Guztira	94.944

b) Eraikuntza enpresaren errekurtsioa Osoko Bilkuraren 2009ko urriko erabakiaren aurka –erabaki horren bidez, udaletxe berriaren obra likidatu zen–. Errekurtsioan, obra-unitate berrien ordainketa, prezioen berrikuspena eta berandutza interesak eskatzen ziren. Lehen auzialdian, zigorra ezarri zitzaion Udalari, enpresari 472.453 euro ordaintzekoa. Udalak epai horren aurkako errekurtsioa aurkeztu zuen. Paraleloki, enpresak planteatu zuen Hegazkintza Zibilak dekretatutako obren geraraztea dela-eta ondare-errekamazioa aurkeztu zuen, 227.816 eurokoa.

Auzi bizeiei amaiera emateko asmoz, enpresarekin 300.000 euroko kalte-ordaina adostu zuen, aurreko kontzeptu guztiengatik, eta enpresak uko egin zion edozein erreklamazio judizial egiteari. Kopuru hori 2013ko urtarrilean ordaindu zen, eta berarekin ekarri zuen ehuneko 3,5eko berandutza interesak ordaintzea.

Jarduketa honek Udalari ekarritako gastua, guztira, ondorengo taulan ikus daiteke:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Kalte-ordaina (aurrekontuko 6. kapitulua)	300.000
Interesak (aurrekontuko 3. kapitulua)	7.000
Defentsa juridikoa	22.900
Prokuradorea	1.121
Guztira	331.021

c) Garraioaren Hiriko plusbalioen aurkako errekurtsioa. Zenbait zergadunek errekurtsio bat aurkeztu zuten Alkatetzak zerga horren likidazio berriak egiteko eman zuen ebazpenaren aurka. Epai bidez asmo hori ezetsi zen, eta zergadun horiei kostuak ordaintzeko zigorra ezarri zitzaion; 19.736 euro egiten zutela jo zen. Txosten hau idazteko unean, Udala kostu horiek itzularazteko prozedura hasita dauka.

- Kontratu bidez ematen diren zerbitzuen emateari buruz Udalak egindako kontrolaren berrikuspenean, ikusi da bideko garbiketaren kasuan jarraipena egokia dela. Alabaina, argiteria publikoaren mantentze-kontratuaren kasuan, kontrol hori ez da nahikoa; hori dela eta, 2014an neurri batzuk ezarri dira horri konponbidea emateko.

Hona gure gomendioak:

- *Gastuaren bolumena aldez aurretik balioets daitekeen kasuetan, dagozkion kontratazio-espeditenteak izapidetzea.*
- *Kontratutako enpresek garatzen duten jarduerari buruzko jarraipen eta kontrol egokiak ezartzea.*
- *Kontratazio espeditenteak egoki artxibatzea, araudi indardunak eskatzen duen dokumentazio guztiarekin.*

VI.4. UDALAREN TRANSFERENTZIENGATIKO GASTUAK

Transferentzia arruntek eta kapital-transferentziek 1,10 milioi euroko gastua ekarri dute, eta Udalaren gastu guztien ehuneko 15 egiten dute.

Tresna izaerako enteak, Udala sartuta dagoen mankomunitateak eta udalerriko kontzejuak finantzatzera bideratutakoek 0,94 milioi egiten dute –2012an emandako diru-laguntza guztien ehuneko 86–, honako xehetasunen arabera (eurotan):

Tresna izaerako enteei eta mankomunitateei egindako ekarpenak	2012an aitortutako betebeharrak
Musika Eskola	261.548
Kultur Patronatua	253.350
Kirol Patronatua	140.000
Kirol Patronatua-Nafarroako Gobernua	2.150
Iruñerriko Mankomunitatea/Eskualdeko Garraioa	135.800
Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	98.881
Kontzejuak	54.000
Guztira	945.729

2011ko ekitaldiarekin alderatuta, transferentzien bidezko gastuek honakoa erakusten dute (eurotan):

Honakoei eginiko transferentzien ondoriozko gastuak	2011n aitortutako betebeharrak	2012an aitortutako betebeharrak	2012/2011 aldea, ehunekoa
Erakunde autonomoak	640.736	657.048	3
Nafarroako Gobernua (INFOLOCAL)	11.236	11.236	-
Toki entitateak (mankomunitateak eta kontzejuak)	394.973	288.680	-27
Enpresa pribatuak	-	31.326	-
Familiak eta irabazi asmorik gabeko erakundeak	82.395	73.226	-11
4. kapitulua, guztira	1.129.340	1.061.516	-6
Familiak eta irabazi asmorik gabeko erakundeak	40.175	41.282	3
7. kapitulua, guztira	40.175	41.282	3
Transferentzien ondoriozko gastuak, guztira	1.169.515	1.102.798	-6

Hau da, gastu horiek ehuneko 6 egin dute behera 2011ko gastuarekin alderatuta. Nabarmen-tzekoa da Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari egindako ekarpena –113.479 euro txikiagoa dela– zeren eta 2012an Mankomunitate horrek, aparteko izaeraz, metatuta zeukan di-ruzaintza-gerakina aplikatu baitu, eta, horren ondorioz, ekarpenak gutxitu baitira.

Bere patronatuei emandako diru-laguntzez gainera, honako hauen lagin batzuk aztertu dira: kontzejuei emandako diru-laguntzak –54.000 euro–, euskaraz ikasten duten ikasleentzako eskola-garraioa –8.854 euro– eta hirugarren munduan inbertsioak egiteko laguntzak –41.282 euro–.

Egindako lanean honako emaitzak lortu dira, laburbilduta:

- Udalak, 2012an, ez du ez ordenantza orokorrik, ez diru-laguntzen plan estrategikorik, nahiz eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak hori ezartzen duen; hala eta guztiz ere, 2013ko abenduan ordenantza orokor bat onetsi da. Bestalde, honako diru-laguntzen ematea arautu du, berariazko bi ordenantzaren bitartez: hirugarren mundurako lankidetzaproiektuetarako laguntzak eta udal planeko diru-laguntzak, Noaini lurraldearen, ekonomiaren eta gizartearen aldetik pizgarriak ematekoak.

- Kontzejuentzako diru-laguntzak 9.000 euroko banaketa lineal bat jasotzen du udalerriko kontzeju bakoitzarentzat, beren jarduera arruntak finantzatzeko. Gaur egun, lanean ari da "argiteria publikoaren kontsumorako kalkulaturako gastuaren" irizpidearen arabera banaketa bat egiteko, zeren eta jotzen baita horixe dela kontzeju bakoitzak hobekien islatzen duena.

Gainera, Udalaren 2. kapituluaren kontzejuen gastu batzuk ageri dira, 49.708 eurokoak, funtsean bat datozenak lorategien mantentzearekin.

- Udalerriaz kanpoko ikastetxe publikoetan euskaraz ikasten duten lehen hezkuntzako ikasleen garraiorako laguntzak zuzenean ematen dira, gurasoen elkarte batekin egindako hitzarmen baten bitartez; elkarte horrek egindako gastuaren ziurtagiria aurkezten du, garraio enpresak egina, non egindako bidaiak eta zaintzailearen kostua jasotzen baitira. 2013/2014 ikasturteik aurrera, banakako diru-laguntzetarako deialdi publiko bat onetsi da, eskola-garraioko gastu horiek finantzatze aldera.

- Hirugarren munduan inbertsioak egiteko diru-laguntzak. 1998an onetsitako udal ordenantzan araututako deialdi publikotik ondorioztatutako gastuak islatzen ditu. Ordenantza horrek laguntza aurkeztutako proiektuen arabera banatzeko irizpide tekniko batzuk badauzka ere, praktikan Udalaren Osoko Bilkurak erabaki ohi du aurrekontu-kontsignazioaren guztizkoa banatzea, betiere honako irizpide hauen arabera:

a) Ehuneko 50 udalerriarekin lotura duten gobernuz kanpoko erakundeekiko zuzeneko hitzarmenaren bidez.

b) Gainerako ehuneko 50a, aurkeztutako proiektuen arteko amaierako banaketa linealaren arabera.

Hona gure gomendioak:

- *Egungo egoera ekonomikoan, Udalak jarraitzen duen diru-laguntzen politika aztertzea. Horretarako, komenigarria litzateke diru-laguntzen plan bat egitea, eta bertan zehaztea helburuak, efektuak, aurreikusitako kostuak, baliabideen aurreikuspena, eragina eta abar.*

- *Kontzejuak beren egiazko premiak, finantzatzeko duten ahalmena eta kontzejuetan egin beharreko inbertsioen lehentasunak kontuan hartuta finantzatzeko modua aztertzea.*

- *Diru-laguntzak emateari buruzko ordenantza berariazkoak berrikustea, haiek egungo egoeraren arabera eta legedia indardunaren arabera egokitzeko.*

VI.5. UDALAREN INBERTSIOENGATIKO GASTUAK

Udalaren inbertsioengatiko gastuek 1,02 milioi euro egiten dute guztira, eta guztizko gastuaren ehuneko 14 dira. Betetze-maila ehuneko 59 da. 2011ko ekitaldiarekin alderatuta, ehuneko 35 gutxitu dira; hau da, milioi erdi bat euro gutxiago daude.

2012ko inbertsio nagusiak hurrengo taulan jaso ditugu:

2012ko inbertsioak	Aitortutako betebeharrak
Udaletxeko gastuen berrikuspena	300.000
Sortzez Garbia kalea berrurbanizatzea	184.580
Donibane kalea berrurbanizatzea	147.169
Musika Eskolaren prezioen eta bestelako gastuen berrikuspena	103.674
Plisti-plastako igerilekua, udarako	63.548
Lorategi berriak	31.375
Kiroldegiko berokuntza sistemaren konponketa	29.885
Kirol-instalazioetako obrak	26.667

2012an honakoak izan dira esleitu diren kontratu garrantzitsuenak:

Deskribapena	Kontratu mota	Esleipen prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Esleipenaren zenbatekoa
Sortzez Garbia kalea berrurbanizatzea	Obrak	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	329.542	14	230.683
Donibane kalea berrurbanizatzea	Obrak	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	377.539	12	248.760

Egindako azterketaren ondorioz, adierazi behar dugu, orokorrean, egiaztatu dela kontratuei buruzko legediaren betetzea eta kontabilizatutako gastuen arrazoizkotasuna.

VI.6. UDALAREN AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK.

Udalaren aitortutako eskubideak 6,84 milioi eurokoak dira. Ehuneko 83ko betetze-maila dute.

Diru-sarreraren ehuneko 93 eragiketa arruntei dagozkie, eta ehuneko zazpi kapital-eragiketeki. 2012an, ez zen diru-sarrerarik jaso zorpetze berria hartzeagatik.

2011ko ekitaldiarekin alderatuta, aitortutako eskubideak ehuneko sei murriztu dira, eta alde hauek izan dituzte, atalez atal (eurotan):

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubide garbiak, 2011	Aitortutako eskubide garbiak, 2012	2012/2011 aldea, ehunekotan
1 Zuzeneko zergak	3.268.763	3.405.766	4
2 Zeharkako zergak	192.864	305.500	58
3 Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	708.281	664.738	-6
4 Transferentzia arruntak	1.776.946	1.856.459	4
5 Ondare diru-sarrerak	93.823	103.673	11
Diru-sarrera arruntak (1etik 5era)	6.040.677	6.336.136	5
6 Inbertsio errealeen besterentzea	450.580	182.654	-59
7 Kapital-transferentziak	822.083	325.081	-60
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	1.272.663	507.735	-60
9. Finantza-pasiboak	0	0	-
Finantza eragiketen diru-sarrerak (9)	0	0	-
Diru-sarrerak, guztira	7.313.340	6.843.871	-6

Aurreko konparazioan, bereziki nabarmentzekoa da diru-sarrera arruntek ehuneko bost egin dutela gora eta kapital-transferentzien bidezko diru-sarrerek, berriz, ehuneko 60 egin dutela behera.

Taula honetan erakusten da nolako eboluzioa izan duten aitortutako eskubideek udal zerga bakoitzean:

Zerga	2011	2012	2012/2011 aldea, ehunekotan
Lurraren kontribuzioa	1.656.854	1.881.490	14
Ibilgailuak	568.210	585.649	3
Lurren balio-gehikuntza	432.921	390.672	-10
JEZ	610.777	547.955	-10
EIOZ	192.864	305.500	58
Guztira	3.461.626	3.711.266	7

Udalaren zergen bidezko diru-sarrerek ehuneko zazpi egin dute gora 2011rekin alderatuta. Igoera hori zor zaie, funtsean, hiri kontribuzioari, ibilgailuei eta EIOZari. Halaber, nabarmentzekoa da JEZak eta lurren balioaren gehikuntzak behera egin dutela.

Aurreko ekitaldiarekiko alderaketan eragina izan dute Udal Kontu-hartzaitzak zenbait tributu eta tasaren ganean 2011ko azaroan eta 2012ko urrian egindako berrikuspen- eta ikuskaritzalanek. Lan horiek beraiekin ekarri dute 2012an aitortutako eskubideek guztira 239.571 euro egoera egitea. Hona xehetasunak:

Zerga	Zenbatekoak 2012an, Kontrola eta ikuskapena
Lurraren kontribuzioa	115.235
JEZ	68.571
EIOZ	46.407
Zergak, guztira	230.213
Hegalkinaren gaineko tasa	9.358
Guztira	239.571

2012ko balorazio ponentzia 2006ko abenduan onetsitakoarekin bat dator.

Udalak aplikatutako tasak Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legeak jasotzen duen sortako tarte ertain/altuan kokatzen dira, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Lurraren kontribuzioa	0,1710	0,10 eta 0,50 bitarte
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,4	1 - 1,40
Lurren balio-gehikuntza		
Gaurkotzearen koefizientea	3,2 eta 8 bitarte	2 eta 3,40 bitarte
Zerga-tasa	13,89	8-20
Eraikuntza, instalazioak eta obrak	4,5-5	2-5

2012an, aurreko ekitaldietako zorraren ehuneko 43 bildu da; hau da, 0,94 milioi. Ordaintzeko geratzen da 1,25 milioiko zenbateko bat, zeina, funtsean, JEZari, plusbalioei eta isunei baitagokie.

Diru-sarrereren aurrekontuko kontusailen lagin baten ganean azterketa egin ondoren, egiaztatu dugu egoki izapidetu eta kontabilizatu direla, oro har. Alabaina, ondorengo puntu hauek azpimarratu nahi ditugu:

- Otik 3 urtera bitarteko haur eskola. Zerbitzu hori tarifan kobrantzaz ere arduratzen den enpresa batek kudeatzen du. Horiei buruz, esan beharra daukagu ez dagoela haiei buruzko ordenantzarik, eta Nafarroako Gobernuak hitzarmenen bidez finantzatutako zentroetarako ezarritako gehieneko kopurua aplikatzen dela; ez dago jasota diru-sarrera horien inongo jarraipen berriazko eta sistematikorik egiten denik. Zerbitzu horren guztizko gastuak 298.409 eurokoak izan dira 2012an –Udalaren gastuen 2. kapituluan erregistratu dira–, eta haien ehuneko 41 Nafarroako Gobernuak finantzatu ditu; ehuneko 39, erabiltzaileek, eta ehuneko 20 Udalak berak. Ikasleak, guztira 77 izan dira.

Gomendatzen dugu haur eskolarako tarifei buruzko ordenantza bat egitea eta diru-sarrereren gaineko behar diren kontrol-prozedurak aplikatzea.

Azkenik, ondorengo taulan, zergengatik aitortutako eskubideen bilakaera erakusten dugu, 2008 eta 2012 arteko epean.

Tributua	2008	2009	2010	2011	2012
Lurraren kontribuzioa	989.038	1.406.361	1.525.879	1.656.854	1.881.490
Ibilgailuak	527.990	564.505	561.517	568.211	585.649
Lurren balio-gehikuntza	1.489.124	448.679	814.109	432.921	390.672
JEZ	530.321	592.266	579.943	610.777	547.955
EIOZ	1.436.066	628.885	234.072	192.864	305.500
Zergak, guztira	4.972.538	3.640.696	3.715.520	3.461.626	3.711.266
Aurkibidea	100	73	75	70	75

Horrenbestez, aztertutako aldian, zergen bidezko diru-sarrerak ehuneko 25 egin dute behera; hau da, 1,26 milioi gutxiago daude. Bereziki nabarmentzekoak dira lurren balio gehikuntzan eta EIOZean izandako jaitsierak; zerga horiei dagokienez, esan behar dugu 2014ko aurrekontuaren aurreikuspenetan diru-sarrerak honela kuantifikatu direla: 359.330 euro eta 104.896 euro, hurrenez hurren.

VI.7. HIRIGINTZA

2006ko kontuei buruzko txostenean adierazi genuen bezala, arloaren antolamendu-egitura finkatu gabe dago; haren erantzukizunak eta eskumenak idatziz finkatu gabe daude, eta hirigintza-kudeaketaren oinarriko prozedurak ere zehaztu gabe daude. Halaber, nabarmentzen zen gainerako udal arloen koordinazio- eta kudeaketa-mekanismoak sendotu behar zirela.

Praktikan, arloak berez hirigintza kudeatzen du, bai eta udal obren eta Agenda 21en jarraipena eta kontrola; halaber, arlo horiekin lotutako zergez eta tasez arduratzen da. Udal idazkariaren goi-zuzendaritzaren pean, honako pertsoneri dagokie:

- Udaleko idazkariordea, zeina 2012an borondatezko eszedentzian baitago.
- Arkitekto bat, administrazio-kontratua duena.
- Aholkulari juridiko bat, alkatetzak libreki izendatua.
- Arkitekto tekniko bat, aldi baterako lan-kontratua duena.
- Administrari funtzionario bat.

Gainera, ordukako laguntza-kontratua duen ingeniari bat ere badago, funtsean ingurumen arloko aholkularitza lanetan diharduena. 2012an, kontratu horrek 18.867 euroko gastua ekarri du. Gainera, 5.414 euro ordaindu zaizkio bestelako lan batzuegatik; funtsean, proiektu bat idazteagatik.

Ez dago finkaturik zein den barne kontroleko organoen eginkizuna, bereziki udal kontuhartzaitzarena.

Udalaren planeamendu indarduna 2001ean onetsitako udal plan batean araututa dago. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea finkatzen zuen, 2006ko apirilera artekoa, indarreko plangintzak homologatu eta egokitzeko. Ez da homologazio hori gauzatu.

2006an, udal plan berria idazteko izapideak hasi ziren. Horretarako, adituen lantalde bat kontratatu zen, 134.267 zenbatekoa ordainduta (BEZik gabe); sinatutako kontratuan ez dira zehazten plan orokor horrek jaso beharko lituzkeen txostenak, eta ez dira, aipatzen, ezta ere, haien fasekako entregetarako epeak, ez eta amaierako erredakzioa entregatzeko epea ere. Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza bat badago gastu horretarako.

2007ko uztailan, Lurraldea Okupatzeko Estrategia eta Eredua (LOEE) onetsi zen, plan berria egin aurretiko agiri gisa. 2011ko uztailan plan berriari hasierako onespina eman zitzaion.

Behin hura Nafarroako Gobernuari igorrita, Lurralde Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuak, 2012ko martxoan, txosten bat eman zuen, non ondorioztatzen baitu hasiera batean onetsitako agiriak gabezia nabarmenak dauzkala eta azterlan osagarriak falta direla (bereziki trafikoari eta zaratei buruz). Gero, Gobernuak zenbait departamenturen txostenak igorri ditu, plan horren ga-beziei buruz.

Ez dago jasota jarduketa gehiagorik egin izana, ez bada Nafarroako Gobernuaren komunikazioa, non esaten baita diru-laguntzaren gainerakoa kobratzeko plan orokorrari behin-behineko onespena emateko fasea burutu beharra dagoela.

Azken batean, jarduketak hasi zirenetik zazpi urte iragan direnean, udalerrriak oraindik ere ez du hirigintza-planeamendurik. Planeamendu hori, ordea, ezinbesteko tresna da Udalaren kudeaketa egokirako. Gaur egun, Udalak, egoera ekonomiko orokorra eta bere egoera partikularra ikusita, udalerrriaren hirigintza-garapenerako eredia berraztertzen ari da.

2012an, ez dago aurrekontuko diru-sarrerarik urbanizazioko kuotengatik edo hirigintza-aprobetxamenduengatik. Azken diru-sarrera horiei dagokienez, hasierako aurreikuspenak 495.063 eurokoak ziren; 2013an, horietatik 134.209 euro kobratu dira.

Udalak ez du prestatu eta ez du, ezta ere, kudeatzen aginduzkoa den Lurzoruaren Udal Ondarearen inbentario eta erregistroa, ez eta hirigintza-hitzarmenen erregistroa ere.

2012an, hirigintzaren arloko lankidetzarako administrazioen arteko hitzarmen bat izenpetu da Noaingo Udalaren eta Gerendiaingo Kontzejuaren artean, kontzejuaren etxea lursail jakin batean eraikitzeko; lursail hori, ordea, plan indardunaren arabera (2001), etxebizitza-erabilerarako lurzoru urbanizagarri gisa sailkatuta dago, zehaztapenik gabe, hurrengo plan partzialean hura definitzen den arte. Udal plan berriak –izapidetzen ari denak– lursail hori lurzoru ez-urbanizagarri gisa kalifikatzen du, kontzejuaren etxea eraikitzea aurreikusi den zatiaren salbuespenarekin; izan ere, azken hori zuzkiduretarako lurzoru urbanizagarri moduan sailkatzen da.

Hona gure gomendioak:

- *Hirigintza kudeatzeko antolamendu-egitura egokia ezartzea, giza baliabideen egungo zuzkidura egiazko lan-zamaren arabera aztertuz. Kideen erantzukizunak eta eskumenak zehaztuko dira, eta hirigintza-kudeaketarako oinarrizko prozedurak diseinatuko dira.*
- *Hirigintzaren eta kontabilitate/kontu-hartzaitzaren arteko kontrol- eta koordinazio-tresnak sendotzea.*
- *Udalerrriaren egungo errealitatearen araberako hirigintza-planeamendu berria izateko izaipideak eta behar diren txostenak urgentziaz amaitzea.*
- *Lurzoruaren Udal Ondarearen erregistroa eta inbentarioa egin eta kudeatzea, eta bertako sarrera eta irteera guztiak erregistratzea eta kontrolatzea, bai lursailei dagokienez, bai eskudiaruari dagokionez, eta, halaber, justifikatzea araudian ezarritako xedeetarako erabili direla.*
- *Hirigintza-hitzarmenen erregistro bat egin behar da, diligentziak eginda, zenbakituta eta abar, eta horietako bakoitzaren espedienteen artxiboa osatu behar da indarrean dagoen araudiak eskatzen duen dokumentazio guztiarekin: hitzarmenak justifikatzeko oroitidazkia, perituen balorazioak, txosten teknikoak eta juridikoak, eskritura publikoak eta abar.*

VI.8. MUSIKA ESKOLA

"Julián Gayarre" Musika Eskolaren Udal Patronatuak 1997an onetsitako estatutu batzuk dauzka arau gisa. 2008an inauguratu ziren instalazio batzuetan garatzen du bere jarduera.

Aipatutako estatutuen arabera, haren xedea da, funtsean, Noain-Elortzibarko Udalaren "Julián Gayarre" Musika Eskola sortu, sustatu, bultzatu eta kudeatzea.

Patronatuko zuzendaritza taldea bertako hiru irakaslek osatzen dute: zuzendari bat, ikasketa buru bat eta idazkari akademiko bat.

Patronatuak 641.048 euroko hasierako aurrekontu/behin betiko aurrekontua dauka 2012an. Aitortutako betebeharrekin 581.204 euro egiten dute, eta betetze maila ehuneko 91koa da; aitortutako eskubideek, guztira, 564.688 euro egiten dute, eta horien betetze maila ehuneko 88koa da.

2012ko ekitaldiko aurrekontu-emaizta doitu 16.517 eurokoa izan da; guztizko diruzaintza-gerakina eta gastu orokorretarako 15.012 eurokoa izan da.

Taula honetan adierazten da zertarako erabili diren eta nola finantzatu diren Patronatuak gastatutako 100 eurotik bakoitza:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantzabidea	Zenbatekoa
Langileak	91	Transferentzia arruntak	60
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	8	Tasak eta prezio publikoak	40
Transferentzia arruntak	1	Bestelako diru-sarrerak	-
Inbertsioak	-		
	100		100

Hau da, funtsean, Udalak -262.266 euro- eta Nafarroako Gobernuak -74.634 euro- eginiko ekarpenekin finantzatu da; gainerakoa, eskolako erabiltzaileek ordaindutako tasa akademikoei dagokie.

Gastuetan, kontusail nagusia langile-gastuena da; izan ere, haren bidez azaltzen dira haien ehuneko 91. Mantentze-kontratu aipagarrienak Udalak berak kudeatzen ditu. Inbertsio-gastuaren barruan, oker egotzi dira nominen programa informatikoaren mantentze-gastuak.

Halaber, balantzean eta emaitzen kontuan ez da eransten aurreko ekitaldiko egoera, Udalaren kasuan gertatzen den bezala. Ez du epe luzeko zorrik.

Formalki ez dago jasota Udaletik jasotako ondasunen atxikipenik, eta ez dago ondasunen inventario formalik, nahiz eta musika-tresnen gaineko kontrol bat badagoen.

VI.8.1. Langile-gastuak

Patronatuaren plantilla organikoa eta langileen zerrenda, 2012koa, Udalarenarekin batera onetsi zen, 2011ko abenduaren 20ko Osoko Bilkuran.

Plantilla horrek 21 lanpostu aurreikusten ditu -guztiek ere lan-izaerako lotura dute-. Hona taula:

Lan-kontratudunak	2012	
	Kopurua	Mota
Finkoak	9	Irakaskuntza
Aldi baterakoak	10	Irakaskuntza
	2	Ez-irakasleak
Guztira	21	

Hau da, 21 lanpostuetatik, bederatzi kontratu finkoekin betetzen dira eta 12, berriz, aldi baterako kontratuekin. Plantillaren ehuneko 57, horrenbestez, aldi baterako lanpostuei dagozkie.

Langile finkoen zerrenda izendunean, sei pertsona baizik ez dira ageri, zeren eta hiru irakasle finko borondatezko eszedentzian baitaude. Sei irakasle finkoetatik, hiruk lanaldi osoa daukate eta beste hiruk lanaldi partziala.

Pertsona bat kenduta -eszedentzian dagoen irakasle finkoa ordeztzen du-, behin-behineko langile guztiek lanaldi partzialeko kontratua dute.

2012ko abenduaren 31n, Patronatuan 18 pertsona ari ziren lanean, aurreko urtean baino pertsona bat gutxiago hain zuzen. Pertsona horietatik, 16 irakasleak dira eta bi ez-irakasleak -administrari bat eta etxezain bat-.

Administrariak lanerako ezintasun iragankorrenegatik bajaran dago 2013ko uztailetik; nominen, diruzaintzaren eta tasen kudeaketaren arduraduna zen. Bajaran dagoenetik, nominen kudeaketa Udalaren nominak kudeatzen dituen enpresa berak kudeatzen ditu.

Nabarmendu beharra dago ikasturtean zehar irakasleen ordezkapen ugari egiten direla, ikasleak eskolarik gabe gera ez daitezzen; 2012an, soilik lau irakasleren kasuan ez zen ordezkapenik egin. Urte horretan, arrazoi hori dela medio, guztira 29 pertsonari ordaindu zaizkie ordainsariak.

Langileen ordainsari-baldintzei dagokienez, honakoa esan behar dugu:

- Funtsean, Nafarroako Foru Komunitateak eta haren erakunde autonomoek beren lan-kontratupeko langileentzat 2007an sinatutako hitzarmen kolektiboan araututa daude.

- Honako ordainsariak jasotzen dituzte:

a) Irakasle diren langileak B mailan daude eta ehuneko 23ko lanpostu osagarria jasotzen dute.

b) Gainera, zuzendaritza taldeko kideak diren irakasleek erantzukizunarengatiko berariazko osagarri bat jasotzen dute, ehuneko 40,15ekoa –zuzendariaren kasuan– eta ehuneko 20,15ekoa –ikasketa buruaren eta idazkari akademikoaren kasuan–, bai eta beste osagarri bat ere, lanaldi zatituan jarduteari dagokiona, ehuneko bostekoa.

²c) Irakasleak ez diren langileak, bi enplegatatu, C eta D mailan daude. Lehenengoa –C mailako administrari bat– ehuneko 50eko lanpostu osagarri bat jasotzen du, lanaldi zatituarengatiko beste osagarri bat, ehuneko bostekoa, eta laugarren osagarri bat, mailari dagokiona, ehuneko 12koa. D mailakoak, berriz, lanpostu osagarria dela-eta, ehuneko bost jasotzen du eta mailaren osagarria-rengatik ehuneko 15.

Gure iritziz, lanaldi zatituaren osagarria eta administrariaren erantzukizunarengatiko osagarria, Udaleko Osoko Bilkurak onetsitako 2012ko plantilla organikoan berariaz jasota badaude ere, ez dute legezko tokirik aipatutako hitzarmen kolektiboaren barruan.

- 2012an, langileen lansariak izoztu ziren eta ez zen ordaindu abenduko aparteko soldata.

- Langileen espedienteak ez daude osaturik; besteak beste, langileak hautatzeko prozedura eta enpleguaren egoera pertsonal eta familiarren egiaztagiria falta dira, haien antzintasuna eta PFEZaren atxikipen-tasa zehazteko beharrezkoak direnak. Antzintasunaren kasuan, aztertu dugun laginari dagokionez, ikusi dugu hasiera-data dela-eta alde batzuk badaudela plantillaren, kontratuaren eta nominako jaso-agiriaren artean.

Langileen hautapen prozedurari dagokionez, honakoa esan behar dugu:

- Langile finkoak oposizio-lehiaketaren prozeduraren bitartez kontratatu ziren.

- Irakasleak diren langileen kontratazioei dagokienez, bi mota daudela esan behar dugu:

a) Aurreikusitako ordezkapenak enplegu zerbitzu publikoari eskatutako zerrenden bitartez egiten dira, nahiz eta beste izangai batzuk ere sar daitezkeen. Curriculumak eskatzen zaie eta elkarriketa pertsonala egiten zaie.

b) Urgentziazko ordezkapenak, langileak une jakin batzuetan falta izateagatik. Pablo Sarasate Kontserbatorioari eskatzen zaizkio izangaiak, inongo publizitaterik egin gabe.

VI.8.2. Tasa akademikoak

Tasa akademikoen kudeaketa dela-eta egindako azterketan, ez dugu ikusten aipatzeko moduko gorabeherarik dagoenik. Alabaina, ondorengo puntu hauek azpimarratu nahi ditugu:

- Ikusi den bezala, 2012an tasen ardura administratiboa zuena 2013ko uztailetik lanerako ezintasun iragankorrarengatiko bajan dago; urte horretako irailean, lanpostu hori betetzeko aldi baterako kontratazio bat egin zen. Egoera hori dela eta, zail gertatu zaigu aplikatu den prozedura aztertzea, diru-sarrera horien arrazoizkotasuna egiaztatze aldera.

- Ikasketen eta musika tresnen modalitate ugari dagoenez, ikasleen egoera pertsonala askotarikoa denez –besteak beste, udalerrian erroldatuta egotea ala ez eta bekak edukitzea– eta or-

² 2013ko uztaillean, osagarri horiek nabarmen murriztu ziren, guztira ehuneko 92 izatetik ehuneko 53,52ra pasa baitziren, erantzukizunarengatiko osagarria kenduta.

daintzeko hainbat modu eta aldizkatasun dagoenez –matrikula eta hiru hilez behingo kobrantzak–, lan bolumen handia dago, bai Eskolak dauzkan ikasleen kopuruari –450 inguru–, bai zenbait eragiketatan eskuzko prozedurak aplikatzeari dagokienez.

- Ikasturte akademikoan haiek igortzeko epeak –irailean, abenduan eta martxoan– direla eta, gertatzen da diru-sarrerak ez zaizkiola beti dagokien aurrekontu-ekitaldiari.

- Tasen kontusail honen barruan, Galar Zendearen ekarpen bat ere jasotzen da, Musika Eskolan matrikulatuta dauden ikasleei ematen dien diru-laguntza bati dagokiona. Ekarpenekin finantzatzen da Noainen erroldatuen eta bertan erroldatuta ez daudenen artean dagoen aldea. Zendeak 2012/2013 ikasturterako ematen duen diru-laguntza, Patronatuak berak 2012ko irailean igorritako likidazioaren arabera, 56.345 eurokoa da; 2012ko aurrekontuan, soilik aitortzen da 22.538 euroko diru-sarrera bat, zeina bat baitator matrikularekin eta lehen jaso-agiriaren ordainketarekin, gainerakoak 2013ko aurrekontuan erregistratzen dira. Ekarpene hori 2013ko urtarrilean kobratu zen.

- Eskudiruko diru-sarrera horiek munta txikikoak badira ere, ez dago jasota kutxako erregistro lagungaririk dagoenik.

VI.9. KIROL PATRONATUA

Kirol Patronatuak hasiera batez 1996an onetsitako estatutu batzuk badauzka; estatutu horiek 2001ean aldatu ziren gero.

Horien arabera, Patronatuaren xedea, funtsean, kirolaren sustapena eta Udalaren kirol instalazioen kudeaketa da.

2004an, enpresa batekin kontratatu zen kiroldegiaren kudeaketa osoa, igerileku estalia eta estali gabekoa barne, bai eta Udalaren kirol eskoletako monitoreen kontratazioa eta ikastetxeko, futbol zelaiko eta pilotalekuko instalazioen zainketa eta garbiketa ere. Kontratu hori Udalak kudeatzen du zuzenean.

Aurrekontuaren ikuspuntutik, ez du langile gasturik, zeren eta arestian aipatutako enpresa baita kirol kudeaketarako behar diren langileak kontratatzen dituena. Hala eta guztiz ere, hiru udal langile zerbitzu horretan duten destinoa: kirolen koordinatzailea, udaletxean bertan eta Patronatuan lanaldi partzialean diharduen administrari bat eta zerbitzu anitzetako langile bat; langile horien gastuak Udalaren aurrekontuari egozten zaizkio.

Patronatuaren estatutuen arabera, bere gastuak eta diru-sarrerak Patronatuko diruzain-administratzaileak "ikuskatu eta kontabilizatuko ditu". Eginkizun horiek kirol koordinatzaileak betetzen ditu.

Patronatuak 194.693 euroko hasierako aurrekontu/behin betiko aurrekontua dauka 2012an. Aitortutako betebeharrak 169.087 euro egiten dute, eta betetze maila ehuneko 87koa da; aitortutako eskubideek, guztira, 177.407 euro egiten dute, eta horien betetze maila ehuneko 91koa da.

2012ko ekitaldiko aurrekontu-emaiza doitua 8.321 eurokoa izan da; guztizko diruzaintza-gerakina 10.610 eurokoa izan da eta gastu orokorretarakoa, berriz, 7.895 eurokoa.

Taula honetan adierazten da zertarako erabili diren eta nola finantzatu diren Patronatuak gastatutako 100 eurotik bakoitza:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantzabidea	Zenbatekoa
Transferentzia arruntak	52	Tasak eta prezio publikoak	19
Ondasunak eta zerbitzuak erostea	47	Transferentzia arruntak	80
Inbertsioak	1	Bestelako diru-sarrerak	1
	100		100

Hau da, haren finantzabidea, funtsean, Udalak jartzen du –140.000 euro–, eta gainerakoa funtsean kirol jarduera programatuengatik ordaintzen diren kuoten bitartez osatzen da.

Gastuetan, kontusail nagusia honakoei dagokie: Udalaren kirol klubentzako diru-laguntzei, kudeaketa-enpresatik heldu diren jarduketari eta kirol jarduerak antolatzeari.

Halaber, balantzean eta emaitzen kontuan ez da eransten aurreko ekitaldiko egoera, Udalaren kasuan gertatzen den bezala. Ez du epe luzeko zorrik.

Patronatuaren ondasunen inbentarioa 2005ekoa da, eta ez dago berariaz jasota Udalaren eskutik jasotako ondasunen atxikipena; hala eta guztiz ere, aurreikusita dago 2014an Udalaren osoko Bilkurak haiek atxikitzeko erabakia hartzea. Gainera, 2012-2013 urteetako materialen inbentario bat aurkeztu da, ondasunak eta haien kokapen fisikoa zehazten dituen, betiere ondasunak baloratu gabe. Ondasun horien kontrol fisiko bat badago, baina balantzean jaso gabe daude.

Era berean, urteko oroitidazki bat egiten da honako xehetasunekin: egindako jarduerak, zein publikori zuzenduta dauden eta zenbat pertsonak parte hartuko duten, Patronatuaren gastua eta diru-sarrerak eta kiroldegiko eta udal eskoletako enplegatuen eta haien jardueraren zerrenda izenduna; hartara, 2012/13 ikasturteari dagokionez, enplegatu kopurua –beren jarduerekin eta arduraldiekin– 44 pertsonakoa zen, eta jardueretan 1.440 kirolarik hartu zuten parte.

Egin den azterketatik, honako alderdiak azpimarratu behar ditugu:

- Klubei ematen zaizkien diru-laguntzak Patronatuak eta Udalak onetsitako deialdi publiko batean araututa daude. Deialdi horretan, hautapen-irizpideak, diruz lagundu beharreko gastuaren izaera eta aurkeztu beharreko egiaztagiriak ageri dira.

- Jardueren eta kirol instalazioen erabileren kuotak eta prezio publikoak Patronatuak onesten ditu hasiera batean, eta Udalaren Osoko Bilkurak berresten ditu gero; kirol instalazioen erabilerarengatik diru-sarrerak kontratatutako enpresak kudeatzen ditu zuzenean; Patronatuak kudeatzen dituen gainerrako jarduerarengatik kuotak, berriz, berari atxikitako udal langileek kudeatzen dituzte.

- Haurrentzako eta gazteentzako kirol jardueren kuotek kobrantza-maila txikia dute –ehuneko 22koa–, zeren eta abenduan igortzen baitira.

- Kirol instalazioen errentamendurako kontratua Zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratu hori, errentamendu-modalitatekoa, 2004an sinatu zen, eta haren xedea zen kiroldegiaren kudeaketa osoa, igerileku estalia eta estali gabekoa barne, eta ikastetxeko, futbol zelaiko eta pilotalekuko kirol instalazioen zainketa eta garbiketa barne, bai eta Udalaren kirol eskoletako monitoreen, zaintzaileen eta masajistaren kontratazioa eta nominen ordainketa ere. Kontratazio horien kostua gero Patronatuari ordainarazten zaio, betiere kontratuaren xede nagusian sartu gabe –kiroldegiaren kudeaketa–; horrenbestez, ez da enpresa-etekinak direla eta inongo ehunekorik aplikatzen.

Kontratuaren hasierako iraupena bi urtekoa zen, eta bi aldeak ados egonez gero, urtero berri-ritu zitekeen, beste hemezortzi urte egin arte, gehienez ere.

Kontratuaren araubide ekonomikoak honako baldintzak dauzka:

a) Esleipen-hartzailearen kargura izanen dira instalazioaren kudeaketari eta mantentzeari dagozkion gastu guztiak. Halaber, hari dagokio diru-sarrera guztiak jasotzea, Udalak berak antolatutako ekitaldien publizitateak sortzen dituen eskubide ekonomikoak eta Patronatuaren beraren kirol-jardueren edo -zerbitzuen diru-sarrerak kenduta.

b) Ekitaldia hasi baino lehen, errentariak gastuen eta diru-sarreraren aurreikuspen bat aurkeztuko du; lehenengoan artean, enpresa-etekina sartuko da. Ekitaldiaren amaieran, errentariak gastuen eta diru-sarreraren urteko likidazioa igorriko du; likidazio hori Udalak eskatuta auditatu ahalko da, eta esan digutenaren arabera, behin bakarrik auditatu da.

c) Udalak konpromisoa hartzen du enpresari zenbateko bat ordaintzeko. Zenbateko hori instalazioetako abonatuaren kopuruaren araberrakoa izanen da eta urtero KPlaren arabera gaurkotuko da; izan ere, baldintza-orrian, ekarpen hori zero euroan finkatzen da (3.500 abonatu baino gehiago badago) edo 42.000 euroan (2.500 abonatu bitarte).

d) Enpresak Udalarri kanon bat ordaintzen dio instalazioen alokairuarengatik. Kanon hori 7.903 euroan finkatzen da, eta urtero berrituko da KPlaren arabera.

e) Hilero, enpresak fakturatuko ditu kudeatzen dituen jarduerak eta kontratatzen dituen langileak direla eta.

Honakoak izan dira aurreko kontratutik heldu diren 2012ko gastuak eta diru-sarrerak:

Gastuak	Zenbatekoa	Diru-sarrerak	Zenbatekoa
Instalazioetako langileak eta masajista	24.977		
Enpresaren bitartezko kirol jarduerak	26.318		
Kirol Patronatua	51.295		
Kudeaketa-kontraturako ekarpena (2. kap.)	49.790	Kiroldegiaren alokairua (5. kap.)	7.511
Udala	49.790	Udala	7.511

Patronatuari igorritako fakturak egiaztatu dira: legezko betebeharrak guztiak betetzen dituzte eta kirol koordinatzailearen ikus-onespena daukate.

Udalarentzako gastuari eta diru-sarrerari dagokienez, ezin izan dugu egiaztatu haien kopurua arrazoizkoa den, zeren eta ezin izan baitugu eskuratu bere enpresak, hautapen prozesuaren garaian, aurkeztu zuen eskaintza ekonomikoa.

VI.10. KULTUR PATRONATUA

Kultur Patronatuak 2013ko ekainean onetsitako estatutu batzuk badauzka. Egoitza gisa Noaingo Kultur Etxea erabiltzen du, zeinaren jarduera "Kultur Etxearen eta hari atxikitako eremuen antolaketa eta erabilerarako" araudian erregulatuta baitago. Araudi hori Osoko Bilkurak onetsi zuen 2003ko maiatzean.

Estatutuen arabera, Kirol Patronatuaren xedea da, funtsean, kultura hedatzen eta garatzen laguntzea, alderdi guztiei dagokienez.

Aurrekontuan, ez dago langile-gasturik. Hala eta guztiz ere, Udalaren bi funtzionario zerbitzu horretan dute destinoa: bata kultur koordinatzailea da –Patronatuaren kudeaketaren arduraduna– eta bestea administrari bat. Gainera, liburutegirako laguntzaile bat ere badu, aretoko teknikari bat eta harrerarako eta etxezaintzarako beste pertsona bat, Udalak berak laguntza teknikoko kontratu baten bitartez kontratatuak. Gastu horien guztizkoa, bai eta instalazioen garbiketarako kontratua ere, Udalaren aurrekontuari egozten zaizkio.

Gainera, Nafarroako Gobernuaren liburutegien sarekoa den liburuzain bat ere badauka.

Patronatuak, 2012an, 317.905 euroko hasierako aurrekontua dauka; hasierako kreditu horiek, aurrekontu-aldaketen bitartez, 6.000 euroan handitu dira. Aitortutako betebeharrak 319.300 euro egiten dute, eta betetze maila ehuneko 99koa da; aitortutako eskubideek, guztira, 307.309 euro egiten dute, eta horien betetze maila ehuneko 95koa da.

2012ko ekitaldiko aurrekontu-emaiza doituia 7.451 eurokoa izan da; guztizko diruzaintza-gerakina eta gastu orokorretarako 16.295 eurokoa izan da.

Taula honetan adierazten da zertarako erabili diren eta nola finantzatu diren Patronatuak gastatutako 100 eurotik bakoitza:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantzabidea	Zenbatekoa
Ondasunak eta zerbitzuak erostea	87	Tasak eta prezio publikoak	14
Transferentzia arruntak	11	Transferentzia arruntak	86
Inbertsioak	2		
	100		100

Hau da, haren finantzabidea, funtsean, Udalak jartzen du -253.350 euro-, eta gainerakoa, funtsean, sarreraren salmentari -23.611 euro- eta eszenatoki-elementuen alokairuari -2.525- dagokie.

Gastuetan, ondasun arrunten atalean, garrantzitsuenak kultur ikuskizunen antolaketari eta herriko jaien antolaketari dagozkie. Transferentzia arruntetan, zenbait kultur entitatekin dauden hitzarmenak egozten dira, bai eta kultur kolektiboentzako laguntzak ere. Azken laguntza horiek irizpide zehatz eta gardenen arabera ematen dira.

Halaber, balantzean eta emaitzen kontuan ez da eransten aurreko ekitaldiko egoera, Udalaren kasuan gertatzen den bezala. Ez du epe luzeko zorrik.

Patronatuaren ondasunen inbentarioa 2007ko ekitaldira artekoa da.

Urteko oroitidazkirik formalki egiten ez bada ere, bai dago egindako jardueren eta haietan parte hartutako pertsonen kopuruaren laburpen bat. 2012an, 101 jarduera antolatu ziren, eta haietan 17.607 pertsonak hartu zuten parte.

Egindako berrikuspen selektibotik ez dago aipatzeko moduko gorabeherarik.

Erakunde autonomoei buruzko gomendioak:

- *Udalak bere erakunde autonomoen ekintzen gain egin beharreko kontrol, kontu-hartzailetza, aholkularitza eta zaintza behar bezala bermatzeko prozedurak taxutzea.*

- *2006ko txostenean esaten genuen bezala, Kultur Patronatua eta Kirol Patronatua udal zerbitzu bihurtzeko aukera aztertzea.*

- *Erakunde autonomoen aurrekontuetan haien jardueratik heldu diren gastu guztiak jasotzea, horren barne direla langile gastuak eta Udalaren aurrekontuari egotzitako gainerako gastuak.*

- *Aztertzea patronatuen kontabilitate-kudeaketarako programa bateratzea komeni den.*

- *Erakunde autonomoen jabetzakoak diren ondasunen eta Udalak haien jarduerak garatzeko haiei atxikitako ondasun eta instalazioen inbentario oso eta gaurkotua egitea.*

- *Musika Eskolari dagokionez:*

- Langileek jasotzen dituzten osagarri batzuk araudiaren arabekoak diren aztertzea.*

- Langileen gorabehera administratibo, ekonomiko eta familiar guztiak dokumentatu eta egoki artxibatzea kasuko espediente administratiboan.*

- Ordezkapenak egiteko aldi baterako kontratuetarako zerrendak egitea, publizitate, lehia, merezimendu eta gaitasun printzipioetan oinarritutako hautapen-prozedura bat aplikatuz.*

- Prozedura informatiko integral bat diseinatzea tasa akademikoak kudeatzeko.*

Lan hau egiteko ardura izan duen Ignacio Cabeza del Salvador auditore jaunak hala proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2014ko martxoaren 26an

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas